

Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala**155. zenbakia****Data 2007-08-08****21772 orria****7 UDAL ADMINISTRAZIOA****DONOSTIAKO UDALA****Udal Planeamenduko Aholku Batzordearen erregelamendua. Behin betiko onespena.****DONOSTIAKO UDALA****Idazkaritza Nagusiko Zerbitzua**

Donostiako Udal Planeamenduari buruzko Aholku Batzordearen Araudiaren behin betiko onespena.

2007ko maiatzeren 22an Donostiako Udalbatzak Donostiako Udal Planeamenduari Buruzko Aholku Batzordearen Araudia behin-behinekoz onartu zuen eta informazio publikorako epea zabaldu zuen, edozein pertsonak egokitzat zituen iradokizunak eta alegazioak aurkezteko.

Epea amaituta zenbait alegazio eta iradokizun aurkeztu ziren eta hauetako batzuk Udalbatzak onartu egin zituen, 2007ko uztailaren 24an egindako bileran, Donostiako Udal Planeamenduari Buruzko Aholku Batzordearen Araudia behin betikoz onartuz.

Ados ez dagoenak bi hilabete du errekurtsioa jartzeko Euskal Herriko Auzitegi Nagusiaren Administrazioarekiko Auzietarako Sailaren aurrean.

Esandako epea argitalpen hau eta hurrengo egunetik aurrera hasiko da.

Legea 7/1985, apirilaren 2ko Toki Jaurbidearen Oinarriak Arautzeko 70.2 artikuluan agintzen duena betez, bestetik, behin-betiko onartutako Ordenantza argitara ematera goaz.

Donostia, 2007ko uztailaren 30a.—Juan Carlos Etxezarreta Villaluenga, Udalbatzaren Idazkari Nagusia.
(4957) (9111)

DONOSTIAKO UDAL PLANEAMENDUARI BURUZKO AHOLKU BATZORDEAREN ARAUDIA

Euskal Autonomia Erkidegoko Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko 2/2006 Legeak (2006ko ekainaren 30ekoa), bere printzipioen artean elkar-hartze sozialaren, herritarren parte-hartzearen eta informazio publikoaren printzipioak biltzen ditu. Halaber, Plan Orokorrak behin betiko onartzeko berezko eskumena edo eskumen eskuordetua duten udalerriei Udal Planeamenduari buruzko Aholku Batzordea –eztabaidarako eta aholkuak emateko tokiko organo gisa– eratzeko betebeharra ezarri die. Batzorde horrek hirigintza planak gizartean itundu daitezen ahalbidetzea izango du helburu. Aholku batzorde horrek tokiko entitateari hirigintza antolamendurako oinarrizko tresnak egin eta onartzen laguntzea du xede; eta, zehatzago, Hiri Antolamendurako Plan Orokorreko zehaztapenei lotuta.

Aipatutako legeko 110. artikulua, bestalde, Aholku Batzordearen oinarrizko ezaugarrien eratzeta eta zehaztea helarazten ditu udal bakoitzak egin, izapidetu eta onartu behar duen araudia onartzera.

Helburu horrekin, Donostiako Udalak, araudi honekin Donostiako Udal Planeamenduari buruzko Aholku Batzordearen sortzea eta funtzionamendua arautu asmo du, kide anitzeko eta eztabaidarako organo aholku-emaile gisa. Organo horrek hirigintza plangintzan gizartearen parte-hartzea antolatzea ahalbidetuko du, hirigintzako ondasunak babestea eta udalerrriaren garapen zentzuzkoa eta sostengagarria bultzatuz.

Araudi honen bitartez, Aholku Batzordearen oinarrizko egitura, eginkizunak eta araubide juridikoa ere zehaztu dira, kide anitzeko organo dela aintzat hartuz, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen Legeko (30/1992 Legea, 1992ko azaroaren 26koa) 22.2. artikuluan zehaztutakoaren arabera.

Hori dela eta, Euskal Autonomia Erkidegoko Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko 2/2006 Legeko (2006ko ekainaren 30ekoa) 110. artikuluan xedatutakoari jarraikiz, honako araudi hau eman da.

I. KAPITULUA**UDAL PLANEAMENDUARI BURUZKO AHOLKU BATZORDEAREN IZAERA ETA EGINKIZUNAK**

1. artikulua. Udal Planeamenduari buruzko Aholku Batzordea sortzea.

1. Euskal Autonomia Erkidegoko Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko 2/2006 Legeko (2006ko ekainaren 30ekoa) 110. artikuluan xedatutakoarekin bat, araudi honen bitartez Donostiako Udal Planeamenduari buruzko Aholku Batzordea sortu eta arautu da.

2. Donostiako Udal Planeamenduari buruzko Aholku Batzordea eztabaidarako eta aholkuak emateko tokiko organoa da, eta elkar-hartze sozialaren eginkizunak betetzeko sortu da, hiriko hirigintza planak egin, izapidetu eta onartzeko prozedurari lotura.

2. artikulua. Atxikitzea.

Udal Planeamenduari buruzko Aholku Batzordea hirigintza arloan eskuduna den udaleko arloari dago atxikia.

3. artikulua. Izaerajuridikoa.

Udal Planeamenduari buruzko Aholku Batzordea kide anitzeko organo gisa eratu da, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen 30/1992 Legeko 22.2. artikuluan zehaztutakoari jarraikiz.

4. artikulua. Eginkizunak eta helburuak.

1. Udal Planeamenduari buruzko Aholku Batzordeari dagozkio honako zeregin hauek:

a) Udalak udalerrriaren planeamendu orokorraren inguruan egingo dituen azterketen, programen, arauen eta jarduera lerroen berri izatea, bai eta horiei buruzko txostenak ematea ere.

b) Bestelako instantzietatik Udalean azter daitezen proposatuko diren planeamendu orokorreko zehaztasunei dagozkien ekimenak, iradokizunak, proposamenak eta aukerak aztertzea.

c) Aholku Batzordeak informazioa bilduko duen hiri antolamenduko beste edozein plan edo tresna ezagutzea, bereziki Hirigintzako Ondareari buruzko Katalogoan eragina izango duten antolamendu planak edo tresnak; eta horiek jakinaraztea, beharrezko den kasuetan.

2. Udal Planeamenduari buruzko Aholku Batzordearen proposamenak edo aukerak gomendioak izango dira udaleko gobernu organoentzat. Horrela, organo horiek erantzun funtsatua eman beharko dute baztertzan edo aldatzen dituzten gomendioei dagokienez.

3. Dena dela, kasuan kasuko hirigintza dokumentua behin betiko onartzean, Udalak justifikatu egin beharko du Aholku Batzordeak proposatutakoetatik bestelakoak diren konponbideak hartzea.

5. artikulua. Txostenak ematea.

1. Udal Planeamenduari buruzko Aholku Batzordeak nahitaez jakinarazi beharko du lehen formulazioko txostenetan hiriko Hiri Antolamendurako Plan Orokorrean egingo diren berrikuste osoak edo zatikakoak zein aldaketa zehatzak, bai eta egiturazko hirigintza antolamendurako bestelako tresnak ere.

a) Lehen formulazioko txostenetan, edo Plan Orokorrean, Sektorizazio Planaren edo Konpatibilizazio Planaren berrikuste osoari nahiz zatikakoari dagozkien txostenetan nahitaez eman beharko du txostena Udal Planeamenduari buruzko Aholku Batzordeak, aurrerapen dokumentuaren edukiari dagokionez.

b) Plan Orokorrean, Sektorizazio Planean edo Konpatibilizazio Planean aldaketa zehatza egiteari buruzko espedienteetan, nahitaez eman beharko da txostena, jendaurrean erakutsiko den lehen dokumentuaren edukiari dagokionez.

2. Halaber, Aholku Batzordeak, gutxienez batzordeko kideen herenak hala eskatzen duenean, bere txostenerako hirigintza antolamendurako bestelako planen eta tresnen ezagutza bildu eta jakinarazi ahalko du.

3. Udalak ofizioz jakinaraziko die Aholku Batzordeko kideei artikuluko honetako 1. atalean zerrendatutako edozein espediente hasi izana, jendaurrean erakutsi aurretik.

4. Aholku Batzordearen nahitaezko txostenak, plangintza aurrerakinaren jendaurreko erakustaldiaren epean egin beharko da; edo, aurrerakinik izapidetzen ez bada, hasiera batean onartutako dokumentuaren jendaurreko erakustaldiarenean. Txosten horiek epe barruan ez emateak, onartzeko ardura duten udal organoei gaitasuna emango die espedienteak izapidetzen jarraitzeko.

II. KAPITULUA

UDAL PLANEAMENDUARI BURUZKO AHOLKU BATZORDEAREN OSAKETA

6. artikulua. Osaketa eta kideak.

1. Aholku Batzordeak kide hauek izango ditu:

— Udaleko alkatea. Batzordeburua izango da.

— Hirigintza arloko eskumena duen gobernu arloko titularra edo zinegotzi ordezkaria. Lehenengo batzordeburordea izango da.

— Ingurumen arloko eskumena duen gobernu arloko titularra edo zinegotzi ordezkaria. Bigarren batzordeburuordea izango da.

— Udal taldeen ordezkariak, Udalbatzako batzordeetako kopuru eta proportzio berean. Batzordeburua eta batzordeburuordeak, alde horretatik, euren udal taldearen ordezkari gisa zenbatuko dira.

— Gizarte Kontseiluan parte hartzen duten auzo elkarten bi ordezkari.

— Ingurumenaren Udal Kontseiluan parte hartzen duten elkarte ekologista edo ingurumenzaleen ordezkari bat.

— Pertsona bat Emakumeak eta Hiria Donostiako foroaren ordezkari.

— Donostiako Gazteen Aholku Batzordeko kide den Euskadiko Gazteriaren Kontseiluaren ordezkaria.

— Hirigintza ondarearen kontserbazioko elkarten ordezkari bat.

— Merkataritzako Aholku Batzordean parte hartzen duten merkataritza elkarten ordezkari bat.

— Mugikortasuneko Aholku Batzordean parte hartzen duten erakundearen ordezkari bat.

— Aranzadi Zientzi Elkartearen ordezkari bat.

— Arkitekto Elkargoaren ordezkari bat.

— Arkitekturako Goi Eskolaren ordezkari bat.

— Udaleko Hirigintza zuzendaria.

— Plan Orokorra Berrikusteko Bulegoko zuzendaritza taldearen ordezkari bat, bulego hori baldin bada.

— Etxegintza etxebizitzetako udal erakundearen kudeatzailea.

— Udaleko idazkari nagusia. Batzordeko idazkaria izango da.

2. Donostiako Udal Planeamenduari buruzko Aholku Batzordeak osoko bilkuraren eta batzorde iraunkorraren bidez jardungo du. Batzordearen osoko bilkurari dagokio 5.1.a) artikuluan aipaturiko txostenak ematea; eta Aholku Batzordeko batzorde iraunkorrari dagokio 5.1.b) eta 5.2 artikuluetakoak.

3. Aholku Batzordearen osoko bilkura, Aholku Batzordearen kide guztiek osatuko dute.

a) Lehendakaritza. Alkateak izango du osoko bilkurako lehendakaritza, batzordeburua denez. Bileretako lehendakari lanak egitea, lehenengo batzordeburuordeari eskuordetu ahalko dio.

b) Kideak. Aholku Batzordearen osoko bilkurako kide izango dira gainerako batzordekideak.

c) Idazkaria. Aholku Batzordearen osoko bilkurako idazkari izango da Udaleko idazkari nagusia, Aholku Batzordeko idazkaria denez, edo hark eskuordetutako funtzionarioa. Idazkariari dagokio, lehendakaritzaren zuzendaritzapean, osoko bilkurari zuzenbide arloko laguntza eta aholkua ematea.

4. Aholku Batzordearen batzorde iraunkorrak Aholku Batzordeko kide hauek izango ditu:

a) Lehendakaritza. Alkateak izango du batzorde iraunkorreko lehendakaritza, Aholku Batzordeko burua denez. Bileretako lehendakari lanak egitea, lehenengo batzordeburuordeari eskuordetu ahalko dio.

b) Kideak. Aholku Batzordeko batzorde iraunkorreko kide izango dira:

— Lehenengo batzordeburuordea, eta Aholku Batzordeko kide den udal talde bakoitzaren ordezkari bat. Batzordeburuordea, alde horretatik, bere udal taldearen ordezkari gisa zenbatuko da.

— Gizarte Kontseiluan parte hartzen duten auzo elkarten ordezkari bat, Aholku Batzordeko kide diren bien artetik.

— Ingurumenaren Udal Kontseiluan parte hartzen duten elkarte ekologista edo ingurumenzaleen ordezkari bat, Aholku Batzordeko kide ere badena.

— Aranzadi Zientzi Elkartearen ordezkaria.

— Arkitekto Elkargoaren ordezkaria.

— Udaleko Hirigintza zuzendaria.

— Plan Orokorra Berrikusteko Bulegoko zuzendaritza taldearen ordezkaria, bulego hori baldin bada.

— Etxegintza etxebizitzetako udal erakundearen kudeatzailea.

c) Idazkaria. Aholku Batzordearen batzorde iraunkorreko idazkari izango da Udaleko idazkari nagusia, Aholku Batzordeko idazkaria denez, edo hark eskuordetutako funtzionarioa. Idazkariari dagokio, lehendakari-

tzaren zuzendaritzapean, Aholku Batzordeko batzorde iraunkorrari zuzenbide arloko laguntza eta aholkua ematea.

7. artikulua. Aholku Batzordeko kideak izendatzea eta kargutik kentzea

1. Aholku Batzordeko kideak alkateak izendatuko ditu. Ordezkarri baldin badira, hona hemen nork proposatuta egingo den izendapena:

- a) Udal taldeen ordezkarriak, udal taldeek proposatuta.
- b) Gainerako ordezkarriak, nor bere erakundeko ordezkaritza organoek proposatuta.

Udal kontseiluetan parte hartzen duten elkarte eta erakundeen ordezkarriak, nor bere elkarte edo erakundeak proposatuko ditu.

2. Postu bakoitzeko, titularra eta bi ordezeko izendatuko dira.
3. Batzordekideak izendatzeko, beharrezkoa da alde zuzenetik kide horiek onartzea.

4. Aholku Batzordeko kideen agintaldia, udal hauteskundeak egitearekin batera bukatuko da. Hala ere, beste kausa hauek direla eta kargutik kendu ahalko dira, orobat:

- a) Kideak berariaz karguari uko egiten dionean.
- b) Epai judizial irmoz, kargu publikoan aritzeko ezgaitasuna edo gaitasungabetzea deklaratu zaionean.
- c) Batzordekidea proposatu duen erakundeak edo erakundeek kentzen dutenean.

5. Batzordeko kideak euren karguagatik baldin badira batzordeko kide, kide izateari utziko diote kargua galtzean.

6. Postu hutsak, izendatzeko ezarritako bide bera erabiliz beteko dira.

8. artikulua. Ordainsaria.

Aholku Batzordeko kideek ez dute ordainsaria jasotzeko eskubiderik izango euren zereginak egiteagatik.

III. KAPITULUA

FUNTZIONAMENDUAREN ARAUBIDEA

9. artikulua. Bilerak.

1. Planeamenduari buruzko Aholku Batzordearen bilerarako deia egingo da, eta bilera egingo du, araudi honetako 5. artikuluan ezarritakoari jarraituz Aholku Batzordearen txostena nahitaez behar duten planeamenduko espedientei dagokienez beharrezkoa den aldiro. Bilera hori, txosten hori emanaz bukatuko da.

2. Orobat, Aholku Batzordeak bilerak egin ahal izango ditu komeni denean. Bilera horietarako deia batzordeburuak egingo du, bere ekimenez edo Aholku Batzordeko kideen herenak –gutxienik– eskatuta.

10. artikulua. Bertaratutako en quorum.

Bilerak, deliberazioak eta erabaki-hartzeak baliozko eran egiteko, beharrezko izango da bilerara etor daitezela batzordeburua eta idazkaria (edota haiek eskuordetutakoak edo haien ordezeko direnak), bai eta, - gutxienik, kideen erdiak. Quorum horri eutsi beharko zaio bilera osoan.

11. artikulua. Bileretarako deiak egitea eta bilerak egitea.

1. Aholku Batzordeak nahitaezko txostena eman behar duen bileretarako deia, plangintza aurrerakinaren jendaurreko erakustaldia hasi aurretik egin beharko da; edo, aurrerakinik ez bada, hasiera batean onartutako dokumentuaren jendaurreko erakustaldia hasi aurretik. Betiere, bilera eguna baino hamar egun baliodun lehenago egin beharko da deia. Deialdiarekin batera, betiere bilerako gaien zerrenda bidaliko da. Eguneko gai zerrendako gaiak buruzko informazioa, epe berean izango da Aholku Batzordeko kideen eskura.

2. Aholku Batzordeko buruak, bere ekimenez, edo batzordeko edozein kidek eskatuta, proposatu ahal izango du –presakako bidez eta deliberazioa hasi aurretik– gaien zerrendan sartu gabeko beste edozein gai sartzeari. Hala ere, ezingo da deliberaziorik egin edo erabakirik hartu gaien zerrendan sartu gabeko ezein gaitaz, salbu eta Aholku Batzordeko kide guztiak presente badira eta gaia presakakotzat jotzen bada gehiengoaren aldeko botoz.

12. artikulua. Tokia eta aktak.

Aholku Batzordearen bilerak Udalaren lokaletan egingo dira. Bilera bakoitzari buruzko akta egingo du Aholku Batzordeko idazkariak. Akta, Aholku Batzordeko kideei bidaliko zaie, hamabost egun balioduneko epean. Eta, egiten den hurrengo bileran, akta onartu ala ez erabakiko da.

13. artikulua. Deliberazioak.

Aholku Batzordeko buruak zuzenduko ditu bilerak, eztabaidak antolatuko, eta bileretako ordena egokia bermatzeko komeni diren neurriak hartuko.

14. artikulua. Erabakiak hartzea.

1. Aholku Batzordearen erabakiak, bertaratuen gehiengo soilaz hartuko dira. Berdinketarik izanez gero, batzordeburuak kalitatezko botoa erabiliko du. Betiere, boto partikularrak eman ahal izango dira, eta bat ez datozenek adierazitako kontrako arrazoiak jasota geratu ahal izango dira.

2. Aholku Batzordeko idazkariak egingo duen eta aztergai den hirigintza espedientearen sartuko den aktan jasota geratuko dira hartutako erabakiak.

15. artikulua. Lan batzordeak.

1. Hirigintza plangintzari lotutako gai zehatzak jorrazteko lan batzordeak eratu ahalko dira, Aholku Batzordearen osoko bilkurako gehiengoak beharrezko jotzen badu.

2. Aholku Batzordeak zehaztuko ditu lan batzordeen osaketa eta funtzionamendua.

3. Lan batzordeek, jorratutako gaien eta ateratako emaitzen berri emango diote Aholku Batzordeari.

16. artikulua. Desegitea.

Udal Planeamenduari buruzko Aholku Batzordea, Udaltzaren erabakiz indarrean den legediari jarraituz desegingo da.

Lehen Xedapen Gehigarria.

1. Araudi honetan ezarrita dauden Udal Planeamenduari buruzko Aholku Batzordearen funtzionamenduari buruzko arauak aplikagarri zaizkie bai Aholku Batzordearen osoko bilkurari, bai Aholku Batzordeko batzorde iraunkorrari.

2. Araudi honetan berariaz ezarri ez denari dagokionez, Udal Planeamenduari buruzko Aholku Batzordearen funtzionamendua eta jarduna ondorengo honek arautuko ditu: 1992ko azaroaren 26ko 30/1992 Legeko (Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen Legea) II. tituluko II. kapituluaren xedatutakoak. Osagarri gisa, 1985eko apirilaren 2ko 7/1985 Legea (Toki Jaurbidearen Oinarriak arautzeko Legea) 2.568/1986 Errege Dekretuan (Toki Erakundearen Antolakuntzaren, Jardunbidearen eta Erregimen Juridikoaren Arautegia) ezarritakoari kasu egingo zaio.

Bigarren Xedapen Gehigarria.

Aholku Batzordeko buruari aginpidea ematen zaio, araudi honetan ezarritakoa garatu eta aplikatzeko beharrezko jarraibide guztiak eman ditzan.

Aldi Baterako Lehen Xedapena.

Hasiera batean onartu diren plangintza orokorreko espedienteek, 2/2006 Legearen (2006ko ekainaren 30ekoa) indarraldia hasi zenez geroztik, eta honako Araudi hau ere indarrekoa izan aurretik, Udal Planeamenduari buruzko Aholku Batzordearen txostena behar dute, behin-behineko onartu aurretik. Eta behin-behineko onartuta daudenek txostena behar dute, Euskal Herriko Lurralde Antolamendurako Batzordeari bidaliak izan aurretik. Lurralde Antolamendurako Batzordeari jadanik bidalita baina behin betiko onartu gabe daudenek, Udal Planeamenduari buruzko Aholku Batzordearen txostena behar dute, behin betiko onartu aurretik.

Aldi Baterako Bigarren Xedapena.

Hiri Antolamenduko Plan Orokorrari buruz izapidean den berrikuste prozesuan, Udal Planeamenduari buruzko Aholku Batzordearen txostena egingo da hura hasiera batean onartzean.

Aldi Baterako Hirugarren Xedapena.

Udal Planeamenduari buruzko Aholku Batzordea baliozko eran eratu izango da, baita elkarte edo erakundearen ordezkari bat edo gehiago izendatzerik izan ez bada, hark parte hartzen duen udal kontseilua eratu ez delako edo izendapen proposamenik ez delako.

Azken Xedapena.

Araudi honen indarraldia, araudia Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratzen den egunaren biharamunetik 15 egun baliodunera hasiko da.